

GIL 111 Carrias Harriko tontorra eta monolitoak



Carrias mendia eta tontorra, San Millán de San Zadornil haranetik ikusita.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 51' 30,20" N
Long.: 3° 10' 26,21" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 485.789,34 m
Y: 4.745.104,03 m



Nola iritsi

Gasteiz-Bóveda errepidetik (A-2622), egitura berezi honen ikuspegi asko eta askotari-koak daude. Zenbait herritatik igo daiteke oinez oinarriraino: San Millán de San Zadornil (Burgos), Corro edo Tobillas.



Carrias mendiko tontorra eta monolitoak Oso ondo ikusten da kareharrien estratifikazio bertikala. Argazkiaren iturria: 'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola'.

GILaren deskribapen laburra

EAEko tontorrik alpetarrena izango da, seguru asko. NW-SE norabideko gailurreria bat da, kilometrotik gorako luzerakoa eta 200 m baino gehiagoko desnibelekoa, Valderejoko antiklinal asimetrikoaren ekialdeko alpean kokatua (LIG 121). Coniaciarreko kareharririk erabat bertikal ezarriek osatzen dute gailurreria. Lodiera metrikoko geruzak osatzen dituzte, zeinek, diaklasa handiak dituztenez, zerra-itxurako formazioak eratzen dituzte goialdean. Horregatik, tontorreko igoera oso arriskutsua da. Higadurak sortu zuen horma zeharkatzen duen begia; ziur asko, higadura karstikoa izango zen. Oinaldean, bloke handien metaketa ikusgarri bat ageri da, pareta bertikaletik higaduraren eraginez eriritako arrokez osatua.

Gune batzuetan, dolomiak agertzen dira —seguru asko, Goi Kretazeokoak—, eta, haien gainean, Tertiario kontinentaleko konglomeratuak, zeinek Kretazeoko kareharrizko harkosko ugari baitituzte. Diskordantzian antolatuta daude tolesaren gainean; hala ere, tolesturaren azken urratsetan bertikal ageri dira.

Behatzeko punturik onena

Gailurrean bertan dago.

Behatzeko puntu irisgarri onena:

San Millán de San Zadornil.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 75, GIL 121.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 30, GIL 109, GIL 110, GIL 112.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala		●		
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- *MAGNA* 110. zk.
- *EVE* 110-IV zk.